

# EGUZKILORE

*(Flor protectora contra las fuerzas negativas)*

Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología
San Sebastián, N.º 7 Extraordinario. Diciembre 1994.

## Coloquio Internacional

### "Movimientos de Población, Integración Cultural y paz"

**Presentación. A. Beristain.** Universitas Fraternitatis ........ 11

**Acto de Apertura**

- **G. Picca.** Objectifs du Centre International ........ 31
- **F. Mayor Zaragoza.** Mensaje del Director General de la Unesco 35
- **G. Suárez Pertierra.** Mensaje del Ministro de Educación ........ 37
- **J. R. Recalde.** Minorías, pulsiones sociales y orden público ........ 39

- **A. Giménez Pericás.** Migraciones forzadas ........ 45
- **Mª de la Luz Lima.** La situación en Latinoamérica ........ 49
- **E. Neuman.** Inmigración en el propio país ........ 73
- **E. Raúl Zaffaroni.** Minorías y poder punitivo ........ 83
- **J. M. de Araujo.** Controle e reação social no Brasil ........ 95
- **R. Cario.** La réaction sociale en France ........ 107
- **J. Castaignède.** Le droit d'asile ........ 119
- **E. Giménez-Salinas.** Extranjeros en prisión ........ 133
- **Tony Peters.** La situación belga ........ 147
- **A. Beristain.** Reflexiones criminológicas ........ 163
- **J. L. Manzanares.** Movimientos de población ........ 191
- **Mª J. Conde.** Movimientos de población y DD. HH. ........ 203
- **M. Fernández.** Emigración transcultural de la paz ........ 205
- **E. Ruiz Vadillo.** Nuevas culturas respetuosas ........ 215

**Conferencia Solemne. J. A. Ardanza.** Integración cultural y paz .. 231

- **A. Messuti.** El refugiado sujeto de derecho ........ 241
- **J. Sugrañes.** Un mundo de refugiados: Africa ........ 249

**Acto de Clausura**

- **F. Buesa.** Movimientos de población y conciencia social ........ 261
- **J. L. de la Cuesta.** Relación general ........ 275

**Anexos**

- **Declaración de San Sebastián** ........ 289
- **Naciones Unidas.** Programa de Acción de Viena ........ 291
- **Consejo de Europa.** Declaration de Vienne ........ 321
- **Informe Cires (marzo 1994)** ........ 333

# PRESENTACION

## CENTRO INTERNACIONAL BAJO EL PATROCINIO DE LA UNESCO

Notable importancia para la Criminología y la Universidad ha tenido la celebración del Coloquio Internacional sobre "La Criminología ante los movimientos de población, la integración cultural y la Paz", organizado (en el Instituto Vasco de Criminología) por el *Centro Internacional de investigación sobre la delincuencia, la marginalidad y las relaciones sociales* que, desde su fundación (febrero 1993), pretende trabajar en línea similar a la marcada por los otros dos Centros Internacionales semejantes, el de Criminología Comparada (en Montreal) y el de Criminología Clínica (en Génova), con cuyos Directores y Profesorado mantenemos estrecha relación.

Nuestro *Centro Internacional* avanza en vanguardia multidisciplinar y creadora, en estrecha relación con la *Sociedad Internacional de Criminología* y con la Asociación Internacional de Derecho Penal. Su Consejo directivo está constituido por el Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, delegado actualmente en el Vicerrector del Campus de Gipuzkoa, Ilmo. Sr. D. José Luis de la Cuesta; el Secretario General de la Sociedad Internacional de Criminología, Sr. D. Georges Picca; el Director del Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutoa, Prof. Dr. Antonio Beristain; el Director del Centre de Sciences Criminelles de la Universidad de Pau (Francia), Prof.Dr. Reynald Ottenhof; y el Catedrático de Métodos de investigación y Diagnóstico en educación, de la UPV/EHU, Prof. Dr. Iñaki Dendaluze (N). Su Comité Científico está compuesto por los especialistas que indicamos a continuación: Luis Arroyo Zapatero, Excmo. y Mgfco. Rector de la Universidad de Castilla-La Mancha. Pierre-Henri Bolle, Professeur de Droit Pénal à l'Université de Neuchâtel. Ulla Bondeson, Professeur de Criminologie à l'Université de Copenhague. Giacomo Canepa, Président H. de la S.I.C. y del Centro Internacional de Criminología Clínica de Génova. Robert Cario, Maître de Conférences. Universidad de Pau y de los Países del Adour. Manuel Cobo del Rosal, Catedrático de Derecho penal. Universidad Complutense de Madrid. Christian Debuyst, Professeur à l'Université Catholique de Louvain. Ezzat Fattah, Professeur de Droit Pénal et de Criminologie - Simon Fraser University. Carlos García Valdés, Director del Centro de Estudios Judiciales del Ministerio de Justicia. Madrid. Uberto Gatti, Professeur Titulaire de Criminologie Juvénile à la Faculté de Médecine de l'Université de Gênes. Enrique Gimbernat, Catedrático de Derecho penal. Universidad Complutense. Madrid. Esther Giménez-Salinas, Miembro

---

(N) Cfr. Oficio del Rectorado de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, del 15 de julio 1993.

del Comité Científico para los Asuntos Criminales del Consejo de Europa. Kataline Gönczöl, Professeur de Criminologie - Eotvos University. Günther Kaiser, Directeur del Max-Planck Instituts für Auslandisches und Internationales Strafrecht. Georges Kellens, Professeur de Criminologie à l'Université de Liège. Hans-Jürgen Kerner, Directeur de l'Institut de Criminologie de Tübingen. Christine Lazerges, Profesora de la Universidad de Montpellier I. Mª de la Luz Lima, Vice-Presidenta de la Sociedad Mexicana de Criminología. Hernando Londoño, Profesor de Derecho penal de la Universidad Pontificia Bolivariana. Medellín (Colombia). Frederick H. Mc Clintock, Professeur de Criminologie à l'Université d'Edinburgh. Joan Mc Cord, Professeur à l'Université de Temple - Président de la Société Américaine de Criminologie. FWM McElrea, Juez del Tribunal de Menores. Auckland (Nueva Zelanda). José Luis Manzanares, Vicepresidente del Consejo General del Poder Judicial. Koichi Miyazawa, Professeur à l'Université de Tokyo. Lorenzo Morillas Cueva, Excmo. y Mgfco. Rector de la Universidad de Granada. Francisco Muñoz Conde, Catedrático de Derecho penal. Universidad de Sevilla. Elías Neuman, Profesor de Victimología. Universidad de Buenos Aires. Reynald Ottenhof, Professeur à la Faculté de Droit de l'Université de Pau et des Pays de l'Adour. Tony Peters, Catedrático de Criminología y Derecho penal. Universidad Católica de Lovaina. Georges Picca, Avocat Général à la Cour de Cassation de Paris - Secrétaire Général de la Société Internationale de Criminologie. J. Albert Reiss Jr., Professeur de Sociologie à l'Université de Yale - Président de la Société Internationale de Criminologie. Luis Rodríguez Manzanera, Catedrático de Criminología. Universidad Nacional Autónoma de México. Antonio Sánchez Galindo, Profesor del INACIPE y Ex-Director de Instituciones Penitenciarias de México. Denis Szabo, Presidente H. de la S.I.C. y del Centro Internacional de Criminología Comparada de Montreal. Angel Toro, Catedrático de Derecho penal. Universidad de Valladolid. Giovanni Battista Traverso, Profesor de Criminología. Universidad de Siena. Italia. Otto Triffterer, Catedrático de Derecho penal. Universidad de Salzburgo. Austria. Andrzej Wasek, Catedrático de Derecho penal. Universidad de Lublin (Polonia). Alice Yotopoulos-Marangopoulos, Président de la Société Hellénique de Criminologie et de la Fondation Marangopoulos. Eugenio Raúl Zaffaroni, Profesor de Derecho penal y Criminología. Universidad Nacional de Buenos Aires.

Entre los objetivos principales del Centro destaca el logro de un más justo y pacífico desarrollo económico, social y cultural de los pueblos y de los individuos, pues toda persona merece respeto incondicionado de su integridad, en su calidad de agente moral, y nunca se le puede considerar como medio para un fin ajeno a su dignidad ilimitada.

Como actividad inicial y presentación del Centro, se han reunido del 21 al 23 del mes de abril, en San Sebastián, más de cuarenta destacadas personalidades nacionales e internacionales para reflexionar, con metodología criminológica interdisciplinar, sobre los movimientos de población, la integración cultural y la paz, según el programa que aquí se transcribe.

*21 de abril, jueves*

19'00 h. Reunión del Consejo de Dirección del Centro Internacional de Investigación sobre la delincuencia, la marginalidad y las relaciones sociales.

*22 de abril, viernes*

10'00 a 11'00 h. Intervenciones solemnes de apertura.

- Ilmo. Sr. D. José Luis de la Cuesta, Vicerrector de la UPV/EHU.
- Prof. Dr. D. Georges Picca, Secretario General de la Sociedad Internacional de Criminología y Avocat à la Cour de Cassation de París.
- Prof. Dr. D. Denis Szabo, Profesor de Criminología y Director del Centro Internacional de Criminología Comparada. Montreal.
- Excmo. Sr. D. José Luis Manzanares, Vicepresidente del Consejo General del Poder Judicial.
- Sr. D. Guilherme L. Da Cunha, Representante en España del Alto Comisionado para los Refugiados, Naciones Unidas.
- Mensaje escrito del Excmo.Sr. D. Federico Mayor Zaragoza, Director General de la UNESCO. París.

**Conferencia:** Excmo. Sr. D. José Ramón Recalde, Consejero de Justicia del Gobierno Vasco.

11'30 a 13'00 h. 1ª Mesa Redonda: "La nueva delincuencia ante los movimientos de población". (Minorías étnicas, culturales y religiosas. Inmigraciones. De la marginación a la delincuencia. Racismo. Xenofobia).

Presidente: Excmo. Sr. D. José Angel Cuerda, Alcalde de Vitoria-Gasteiz y Miembro del dispositivo internacional para los refugiados guatemaltecos.

Moderador: Sr. D. Antonio Giménez Pericás, Magistrado de la Audiencia Provincial de Gipuzkoa.

Ponentes:

- Profª. Drª. Dª. Esther Giménez-Salinas, Miembro del Comité Científico para los Asuntos Criminales del Consejo de Europa.
- Prof. Dr. D. Miguel Fernández, Catedrático de Didáctica de la Universidad Complutense de Madrid, e Inspector de la UNESCO.
- Prof. Dr. D. Eugenio Raúl Zaffaroni, Profesor de Derecho penal y Criminología. Universidad Nacional de Buenos Aires. Ex-Director del Instituto Latinoamericano de las Naciones Unidas para la Prevención del Delito y Tratamiento del Delincuente (ILANUD).

13'30 h. Recepción en el Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

16'30 a 18'00h. 2ª Mesa Redonda: "Nuevo control social de la delincuencia y desviación en los movimientos de población". (Estrategias de intervención. Prevención. Nuevas formas de integración cultural. Derecho de asilo. Declaración de Viena, de 8 y 9 de octubre 1993).

Presidente: Prof. Dr. D. Denis Szabo, Profesor de Criminología y Director del Centro Internacional de Criminología Comparada. Montreal.

Moderador: Prof. Dr. D. Francisco Aldecoa, Catedrático de Relaciones Internacionales de la UPV/EHU y Director de la Revista *Tiempo de Paz*.

Ponentes:

- Prof. Dr. D. Robert Cario, Maître de Conférences. Universidad de Pau y de los Países del Adour (Francia).
- Profª. Dª. Jocelyne Castaignède, Maître de Conférences. Universidad de Pau y de los Países del Adour (Francia).
- Sr. D. Guilherme L. Da Cunha, Representante en España del Alto Comisionado para los Refugiados, Naciones Unidas.
- Profª. Drª. Dª. Mª de la Luz Lima, Catedrático de Derecho penal y Vice-Presidenta de la Sociedad Mexicana de Criminología.

18'30 a 20'00 h. 3ª Mesa Redonda: "Privación de libertad y sanciones alternativas ante los delitos de los movimientos de población". (Diversidad de lenguas, culturas, religiones. Dificultades de alimentación, salud, etc., en las prisiones. Voluntariado).

Presidente: Profª. Drª. Dª. Esther Giménez-Salinas, Miembro del Comité Científico para los Asuntos Criminales del Consejo de Europa.

Moderador: Prof. Dr. D. Francisco Etxeberria, Profesor de Medicina Legal de la UPV/EHU.

Ponentes:

- Prof. Dr. D. Tony Peters, Catedrático de Criminología y Derecho penal. Universidad Católica de Lovaina.
- Sr. D. Josep Sugrañes, Director Internacional Adjunto del Jesuit Refugée Service. Roma.
- Prof. Dr. D. Marcello de Araújo, Jr., Catedrático de Derecho penal. Río de Janeiro.

*23 de abril, sábado*

9'00 a 10'30 h. 4ª Mesa Redonda: "Los movimientos de población y la Victimología". (Protagonismo de las víctimas. Victimario difuso. De la restauración a la reconciliación y la recreación).

Presidente: Prof. Drª. Dª. Mª Angeles Mtz. de Pancorbo, Profesora de Biología celular de la UPV/EHU.

Moderador: Prof. Dr. D. Iñaki Dendaluze, Catedrático de Métodos de Investigación y Diagnóstico en Educación de la UPV/EHU.

Ponentes:

- Prof. Dr. D. Elías Neuman, Profesor de Victimología. Universidad de Buenos Aires.
- Prof. Dr. D. Antonio Beristain, Catedrático Emérito de Derecho penal y Director del Instituto Vasco de Criminología.
- Excmo. Sr. D. José Luis Manzanares, Vicepresidente del Consejo General del Poder Judicial.

11'00 a 12'30 h. 5ª Mesa Redonda: "La emigración transcultural de la paz". (Planes nacionales e internacionales. Nuevas culturas respetuosas de los Derechos humanos y de las exigencias de la justicia).

Presidente: Ilma.Srª. Dª. Mª Jesús Conde, Directora de Derechos Humanos. Departamento de Justicia. Gobierno Vasco.

Moderador: Sr. D. Luis Navajas, Fiscal Jefe de la Audiencia Provincial de Gipuzkoa.

Ponentes:

- Prof. Dr. D. Eusebio Fernández, Director del Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas. Universidad Carlos III. Madrid.
- Sr. D. L.E. Pettiti, Juge à la Cour Européenne des Droits de l'Homme, Consejo de Europa.
- Excmo. Sr. D. Enrique Ruiz Vadillo, Presidente de la Sala Segunda del Tribunal Supremo y Presidente del Instituto de Europa en España.

13'00h. Acto Académico en favor de la integración cultural y la paz. (Salón del Trono de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa).

Intervenciones:

- Excmo. Sr. D. Eli Galdós, Diputado General de Gipuzkoa.
- Prof. Dr. D. Antonio Beristain, Catedrático Emérito de Derecho penal y Director del Instituto Vasco de Criminología.
- Profª. Drª. Dª. Mª de la Luz Lima, Vice-Presidenta de la Sociedad Mexicana de Criminología.
- Prof. Dr. D. Elías Neuman, Profesor de Victimología. Universidad de Buenos Aires.
- Sr. D. L.E. Pettiti, Juge à la Cour Européenne des Droits de l'Homme, Consejo de Europa.
- Sr. D. Guilherme L. Da Cunha, Representante en España del Alto Comisionado para los Refugiados, Naciones Unidas.
- Prof. Dr. D. Denis Szabo, Profesor de Criminología y Director del Centro Internacional de Criminología Comparada. Montreal.
- Excmo. Sr. D. Enrique Ruiz Vadillo, Presidente de la Sala Segunda del Tribunal Supremo y Presidente del Instituto de Europa en España.
- Excmo. y Mgfco. Rector de la UPV/EHU, Dr. D. Juan José Goiriena.

**Conferencia Solemne**: Excmo. Sr. D. José Antonio Ardanza, Lehendakari del Gobierno Vasco, sobre "Integración cultural y paz".

16'30 a 18'00 h. 6ª Mesa Redonda: "Refugiados e integración cultural" (Reflexiones criminológicas).

Presidente: Prof. Dr. D. Georges Picca, Secretario General de la Sociedad Internacional de Criminología y Avocat à la Cour de Cassation de Paris.

Moderador: Ilmo. Sr. D. Juan Bautista Cremades, Presidente de la Audiencia Provincial de Gipuzkoa.

Ponentes:

- Ilmo. Sr. D. Juan Mª Bandrés, Eurodiputado y Presidente de la Comisión Española de Ayuda al Refugiado.
- Ilmo. Sr. D. Joaquín Giménez, Presidente de la Audiencia Provincial de Bilbao.

- Srª. Dª. Ana Messuti, Asociación Americana de Juristas. Ginebra.
- Sr. D. Josep Sugrañes, Director Internacional Adjunto del Jesuit Refugée Service. Roma.
- Prof. Dr. D. Denis Szabo, Director del Centro Internacional de Criminología Comparada.

18'30 a 20'00 h. Acto de Clausura.

- Rapport general: Ilmo.Sr.D. José Luis de la Cuesta, Catedrático de Derecho penal y Vicerrector de la UPV/EHU.
- Palabras de clausura:
- Prof. Dr. D. Eugenio Raúl Zaffaroni, Profesor de Derecho penal y Criminología. Universidad Nacional de Buenos Aires.
- Prof. Dr. D. Georges Picca, Secretario General de la Sociedad Internacional de Criminología.
- Prof. Dr. D. Denis Szabo, Director del Centro Internacional de Criminología Comparada.

**Conferencia**: Excmo. Sr. D. Fernando Buesa, Vicelehendakari de Asuntos Sociales y Consejero de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

En este número extraordinario de Eguzkilore encuentra el lector gran parte de las ponencias, las comunicaciones y los demás trabajos que se expusieron y comentaron durante los tres días. Su lectura patentiza que hemos iniciado un camino nuevo en el campus de la investigación y la docencia, bajo el patrocinio de la *Unesco*; de la Administración de la Justicia, en colaboración con el Consejo General del Poder Judicial; de la Asistencia social, en unión con el Alto Comisionado para los Refugiados, de las *Naciones Unidas*; e incluso de la Política gubernamental, con la participación de las más altas personalidades del Gobierno Vasco, el Excmo. Sr. D. José Antonio Ardanza, Lehendakari, el Excmo.Sr. D. José Ramón Recalde, Consejero de Justicia, y el Excmo. Sr. D. Fernando Buesa, Consejero de Educación, Universidades e Investigación. (En el programa se indican las otras importantes instituciones que han tomado parte activa en el Coloquio).

Pocos *temas* más merecedores de estudio compartido que el escogido para estas jornadas de reflexión y profundización. Los medios de comunicación golpean nuestra sensibilidad cada día con datos increíbles y con estadísticas voluminosas de miles y millones de víctimas que producen los trágicos movimientos de población acá y acullá. Son problemas sumamente actuales, urgentes y universales. Nos afectan a todas las personas y a todas las instituciones, pues, si no ponemos desde hoy manos a la obra, podemos acercarnos a la guerra final, y al empobrecimiento humano de toda la galaxia que habitamos. De las urgentes integraciones culturales depende la paz y también que nuestra Tierra sea un pequeño cubo de basura cósmica o un jardín con música.

La Unión Europea surge desde, y conduce a, un nuevo planteamiento económico, político, social e incluso axiológico que, en la "aldea global" que ya es el mundo, requiere urgentemente una Unión Europea de valores humanos que atiendan, entiendan y solucionen las crisis profundas de racismo, actitudes xenófobas, migraciones, minorías, subculturas, derecho de asilo, cultura de la paz, solidaridad, etc.

Con la pretensión de alcanzar *metas* muy ambiciosas, se invitó a los *profesores* más capacitados de una decena de países. Personas que ocupan cargos de máxima responsabilidad en Universidades, Instituciones gubernamentales y no-gubernamentales; que destacan y sobresalen en el mapamundi internacional por su enorme capacidad intelectual, pero no sólo de tipo cerebral, cartesiano, sino más bien interdisciplinares, incluyentes de lo agápico, festivo y cordial, sin caer en la barbarie de la especialización excluyente.

El Coloquio, que se desarrolló siguiendo, dentro de lo posible, las normas de similares encuentros en el Consejo de Europa y en las Naciones Unidas, subrayó la necesidad (que ya constataba el Miembro de Honor del Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutoa, Don José Miguel de Barandiarán) de intensificar más y más las investigaciones empíricas y axiológicas, y nos brindó la oportunidad de aprender y dialogar con científicos de primera categoría cuyo virtuosismo nos permite entender, integrar y desarrollar los inmensos potenciales de los símbolos, los mitos y las creencias de las diversas culturas y religiones enriquecedoras de nuestros pueblos.

Se ha analizado nuestra percepción diferenciada de las personas extranjeras, según provengan de países de la Comunidad Europea o de otros países más lejanos; también el Acuerdo de Schengen distingue estos dos grupos. Especial consideración merece España y, en concreto, el País Vasco por su situación "puente" y "frontera sur" de los inmigrantes que desde Africa desean entrar, refugiarse, en Europa.

Se ha prestado particular atención a las cuestiones/perspectivas criminológicas, con sus más o menos inmediatas incidencias en el campo de los derechos-deberes humanitarios, de la nueva solidaridad planetaria, de la administración de la justicia, del control social (no sólo policial), de la asistencia social, sin olvidar el ámbito universitario y cultural.

No obstante el incremento de complejidad de las cosmovisiones postmodernas, hemos de superar el desencantamiento, y vadear el sinsentido que amenaza al tercer milenio. Conviene reinterpretar las tradiciones de nuestros colectivos europeos para superar las discriminaciones que olvidan la dignidad de toda persona y el *interior común* a la *alegría nutriente*.

Se discutieron y se formularon críticas científicas a las legislaciones nacionales que violan los derechos de los inmigrantes. En concreto, la ley española de 1985, en su artículo 26, señala como causa de expulsión "carecer de medios lícitos de vida, ejercer la mendicidad o desarrollar actividades ilegales"... y permite a la autoridad administrativa (no judicial) proceder a la detención del extranjero con carácter preventivo o cautelar de hasta cuarenta días mientras se sustancia el expediente administrativo. Así, este artículo encubre un remedo de un proceso penal y establece una prisión preventiva, lo que constituye materialmente la imposición de una sanción penal, por vía administrativa. Claramente, se vulnera el artículo 25,3 de la Constitución.

Nadie se limitó a la censura negativa de la violación de los derechos humanos, sino que se pergeñaron programas positivos para una política de inmigración, que respete la diversidad cultural y fomente el desarrollo de medidas gubernativas y no

gubernativas protectoras de esas minorías que actualmente se encuentran vulnerables, indefensas, frente a las agresiones de sectores extremistas que profesan ideologías próximas al nazismo y al fascismo.

Se reflexionó sobre la realidad social de España y casi toda Europa que constituye un foco de atracción para tantas y tantas personas del Tercer Mundo que inmigran buscando mejores perspectivas económicas y refugio que les salve de persecuciones mortales injustas. También se intentó abrir una puerta y muchas ventanas para acoger en un regazo cálido al OTRO, al DIFERENTE, que nos libere de nuestro suicida egoísmo autista.

En el ámbito del Derecho privado quizás convenga mantener la designación de heredero único y la troncalidad (con tal que no genere un síndrome casal) para evitar la fragmentación hereditaria; pero, en el foro público vale la pena dividir y *compartir y fraternizar* en abanico nunca excluyente. Buscamos un esfuerzo moral generoso, completivo e integrador. Como proclama la escuela de M. Buber, no brota el YO hasta que reconoce al TU, distinto. Hay mestizajes fértiles.

A lo largo de estas jornadas se crearon puntos fecundos de intersección del campus universitario criminológico con nuestra sociedad y nuestros medios de comunicación. ¿Nacerá una criatura nueva, una justicia nueva: no retributiva, ni meramente restaurativa?. ¿Una justicia recreativa, social, de fraternidad generosa, aunque nos exija dar más y tener menos, tener menos cosas, pero más felicidad?.

Antes de terminar, he de manifestar nuestro agradecimiento a quienes hacen posible el desarrollo de nuestra labor académica. Particular mención hemos de hacer al Rector de nuestra Universidad, Excmo. y Mgfco. Sr. D. Juan José Goiriena, al Excmo .Sr. Consejero de Justicia del Gobierno Vasco, D. José Ramón Recalde, al Excmo. Sr. D. Enrique Ruiz Vadillo, Presidente de la Sala 2ª del Tribunal Supremo y Presidente del Instituto de Europa en España, a la Ilma. Srª. Viceconsejera de Justicia del Gobierno Vasco, Dª. Encarnación de Miguel, a la Directora de Derechos Humanos, Dª. Mª. Jesús Conde, al Vicerrector de investigación de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Ilmo. Sr. D. Juan Ramón González Velasco, al Vicerrector del Campus de Gipuzkoa, Ilmo. Sr. D. José Luis de la Cuesta, al Vicerrector de Ordenación Académica, Ilmo. Sr. D. Pedro Luis Arias Ergueta, a los Profesores Reynald Ottenhof y Robert Cario, de la Universidad de Pau, a Francisco Etxeberria, Secretario General del IVAC-KREI, y Augusto Maeso, Secretario Técnico en el Consejo Directivo de nuestra revista *Eguzkilore*, a todos(as) los profesores(as) del Instituto, al Diputado General de Gipuzkoa, Excmo. Sr. D. Eli Galdós, a la Diputada de Cultura de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, Ilma. Srª. Dª. Mª Jesús Aramburu, al Alcalde de San Sebastián, Excmo. Sr. D. Odón Elorza, al Alcalde de Vitoria-Gasteiz, Excmo. Sr. D. José Angel Cuerda, sin olvidar a las personas que realizan las labores de Administración, secretariado, biblioteca y servicios informáticos, entre las que hemos de citar a Inmaculada Iraola, María Jesús Lasquibar, Arantxa Redondo, Itziar Aristizabal, Itziar Ibáñez, Isabel Germán, Lourdes Ruiz, Isabel San Vicente, Pedro Achutegui, Roberto Casas y Francisco Marín; así como a Gema Varona, becaria de investigación del Gobierno Vasco en el IVAC-KREI, y a quienes generosa e inteligentemente colaboran con nosotros.

También expresamos nuestro reconocimiento al Excmo. Sr. Presidente de la Fundación BBV, D. José Angel Sánchez Asiaín y a la Directora de dicha Fundación, Dª. Mª. Luisa Oyarzabal, por habernos permitido reproducir en el Anexo final, el número de CIRES correspondiente al mes de marzo de 1994.

Especialísima referencia merece el Excmo. Sr. D. Eduardo Chillida, Medalla de Oro de nuestra Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea y Académico Honorario de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, que ha tenido la amabilidad y generosidad de crear y obsequiar a nuestro "Centro Internacional de Investigación sobre la delincuencia, la marginalidad y las relaciones sociales" el logotipo de este Centro, que con profunda satisfacción y gratitud presentamos en la portada de este nº extraordinario de *Eguzkilore*, Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología. Desde hoy, éste será el logotipo del "Centro Internacional de Investigación sobre la delincuencia, la marginalidad y las relaciones sociales".

No puedo concluir estas páginas sin transcribir -agradecido- algunas líneas de la conferencia magistral del Lehendakari del Gobierno Vasco, Excmo. Sr. D. José Antonio Ardanza, cuando subrayó que "durante milenios ha prevalecido la percepción hostil o, al menos, discriminatoria del otro, de su diferencia étnica, cultural o social. Paradójicamente, también desde hace milenios se intenta abrir camino la visión de un mundo fraterno, capaz de derribar las barreras y prejuicios que inundan de dolor y de violencia la Tierra".

En esta misma línea de profundo humanismo el Director General de la Unesco, Excmo. Sr. D. Federico Mayor Zaragoza, destaca la complejidad, novedad e importancia del temario: "Sin duda, escribe, cada uno de los temas abordados en este coloquio bastaría por sí mismo para motivar una o varias reuniones internacionales. Se ha preferido aquí examinarlos en conjunto, lo cual constituye una iniciativa innovadora, cuyo propósito es aportar claridad a las relaciones entre los derechos humanos, los movimientos de población, la integración cultural y la paz. La tarea presenta, sin duda, gran complejidad pero, teniendo en cuenta la calidad de los participantes, está llamada a desentrañar, para beneficio de todos, el laberinto en que se encuentran sumidas estas cuestiones vitales".

Antonio BERISTAIN
Miembro del Consejo Directivo
del Centro Internacional de Investigación
sobre la delincuencia, la marginalidad
y las relaciones sociales

## AURKEZPENA

### NAZIOARTEKO ZENTROA UNESCO-REN BABESPEAN

Kriminologiarentzat eta Unibertsitatearentzat garrantzi handia izan du "Kriminologia biztanleri mugimenduen, kultur integrazioaren eta bakearen aurrean" gaiari buruzko nazioarteko solasaldiak, *Delinkuentziari, marginaltasunari eta gizarte-harremanei buruzko nazioarteko ikerkuntza zentroak* (Kriminologiaren Euskal Institutuan) antolatua, zeinak sortu zenez geroztik (1993ko otsaila), beste bi Nazioarteko Zentro antzekoek, hau da, Kriminologia Konparatukoak (Montreal) eta Kriminologia Klinikokoak (Genoa), markatutako ildo beretsuan lan egin nahi baitu, bertako Zuzendari eta Irakasleekin harreman estuak ditugularik.

Gure *Nazioarteko Zentroak* (zeinaren Zuzendaritza Kontseilua honakoez osatua dagoen: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea, gaur egun ordezpenez Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea, José Luis de la Cuesta jauna; Kriminologiako Nazioarteko Elkarteko Idazkari Nagusia, Georges Picca jauna; Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutuko Zuzendaria, Antonio Beristain irakasle dok.; Pauko Unibertsitateko Centre de Sciences Criminelles-eko (Frantzia) Zuzendaria, Reynald Ottenhof irakasle dok.; UPV/EHUko Ikerkuntzako metodoen eta Hezkuntzako diagnosiaren katedraduna, Iñaki Dendaluze irakasle dok. (N) eta baita ere bere Zientzi-Batzordea osatzen duten adituek: Luis Arroyo Zapatero. Pierre-Henri Bolle. Ulla Bondeson. Giacomo Canepa. Robert Cario. Manuel Cobo del Rosal. Christian Debuyst. Ezzat Fattah. Carlos García Valdés. Uberto Gatti. Enrique Gimbernat. Esther Giménez-Salinas. Kataline Gönczöl. Günther Kaiser. Georges Kellens. Hans-Jürgen Kerner. Christine Lazerges. Mª de la Luz Lima. Hernando Londoño. Frederick H. Mc Clintock. Joan Mc Cord. FWM McElrea. José Luis Manzanares. Koichi Miyazawa. Lorenzo Morillas Cueva. Francisco Muñoz Conde. Elías Neuman. Reynald Ottenhof. Tony Peters. Georges Picca. J. Albert Reiss Jr. Luis Rodríguez Manzanera. Antonio Sánchez Galindo. Denis Szabo. Angel Toro. Giovanni Battista Traverso. Otto Triffterer. Andrzej Wasek. Alice Yotopoulos-Marangopoulos. Eugenio Raúl Zaffaroni) abangoardia disziplinanitz eta sortzailean darrai aurrera, Kriminologiako Nazioarteko Elkartearekin eta Zuzenbide Penaleko Nazioarteko Elkartearekin harreman estuan.

Zentroaren helburu nagusienen artean herrialdeen eta norbanakoen garapen ekonomiko, sozial eta kultural justuagoa eta baketsuagoa lortzea nabarmentzen da,

---

(N) Cfr. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretzako 1993ko uztailaren 15eko ofizioa.

pertsona orok merezi baitu bere osotasunaren baldintzarik gabeko errespetua, agente moral gisa duen izaera dela-eta, eta ezin da bere mugarik gabeko duintasunaz kanpoko helburu baterako bitarteko gisa kontsideratu.

Hasierako ekintza eta Zentroaren aurkezpen gisa, apirilaren 21etik 23ra, nazioko eta nazioarteko berrogei aditu ospetsu bildu dira Donostian, disziplinarteko metodologiaz baliatuz, biztanleri mugimenduei, kultur integrazioari eta bakeari buruz gogoeta egiteko, hemen transkibatzen den programaren arabera.

21 Osteguna

19:00etan. Delinkuentzia, marginaltasun, eta gizarte harremanei buruzko Nazioarteko Ikerkuntza Zentroko Zuzendaritza Kontseiluaren bilera.

22 Ostirala

10:00etatik 11:00etara. Irekierako ondore handiko hitzaldiak.

- Juan José Goiriena, UPV/EHUko Errektore jaun gorena.
- Georges Picca Irak. Dok. jauna, Kriminologiaren Nazioarteko Elkarteko Zuzendari Nagusia eta Avocat à la Cour de Cassation de Paris.
- Denis Szabo Irak. Dok. jauna, Kriminologiako Irakasle eta Krimonologia Alderatuko Nazioarteko Zentroko Zuzendaria. Montreal.
- José Luis Manzanares jaun txit garaia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lehendakariordea.
- Guilherme L. Da Cunha jauna, Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisionatu Gorenak Espainian duen Ordezkaria.
- Federico Mayor Zaragoza jaun txit garaiaren idatzitako mezua, UNESCOko Zuzendari Nagusia. Paris.

**Hitzaldia**: José Ramón Recalde jaun txit garaia, Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailburua.

11:30etatik 13:00etara. 1. Mahaingurua "Delinkuentzia berria biztanleri mugimenduen aurrean". (Gutxiengo etnikoak, kulturalak eta erlijiozkoak. Inmigrazioak. Marginaziotik delinkuentziara. Arrazakeria. Xenofobia).

Lehendakaria: José Angel Cuerda jaun txit garaia, Vitoria-Gasteizko Alkate eta guatemaldar errefuxiatuentzako nazioarteko dispositiboko kidea.

Moderatzailea: Antonio Giménez Pericás jauna, Gipuzkoako Lurralde Entzutegiko Magistratua.

Hizlariak:

- Esther Giménez-Salinas Irak. Dok. andrea, Europako Kontseiluaren Arazo Kriminaletarako Zientzi Batzordekidea.
- Miguel Fernández Irak. Dok. jauna, Madrileko Unibertsitate Konplutenseko Didatikako Katedraduna, eta UNESCOko Ikuskaria.

- Eugenio Raúl Zaffaroni Irak. Dok. jauna, Zuzenbide Penaleko eta Kriminologiako Irakaslea Buenos Aireseko Unibertsitate Nazionalean. (ILANUD) Delituari Aurrea Hartzeko eta Delinkuentearen Trataerarako Latinamerikar Institutuko Zuzendari ohia.

13:30etan. Donostiako Udaletxean harrera.

16:30etatik 18:00etara. 2. Mahaingurua "Delinkuentziaren gizarte-kontrol berria eta desbideratzeak biztanleri mugimenduetan". (Eskuartze-estrategiak. Aurrea hartzea. Kultur integraziorako forma berriak. Asilo eskubidea. 1993ko urriaren 8 eta 9ko Vienako Aldarrikapena.

Lehendakaria: Denis Szabo Dok. jauna, Kriminologiako Irakasle eta Krimonologia Alderatuko Nazioarteko Zentroko Zuzendaria. Montreal.

Moderatzailea: Francisco Aldecoa Irak. Dok. jauna, UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako Katedraduna.

Hizlariak:

- Robert Cario Irak. Dok. jauna, Maître de Conférences. Pabeko eta Adourreko herrialdeetako Unibertsitatea. Frantzia.
- Jocelyne Castaignède Irak. andrea, Maître de Conférences. Pabeko eta Adourreko herrialdeetako Unibertsitatea. Frantzia.
- Guilherme L. Da Cunha jauna, Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisionatu Gorenak Espainian duen Ordezkaria.
- Mª de la Luz Lima, Irak. Dok. andrea, Zuzenbide penaleko Katedraduna eta Kriminologiaren Mexikar Elkarteko Lehendakariordea.

18:30etatik 20:00etara. 3. Mahaingurua "Askatasuna kentzea eta zigor alternatiboak biztanleri mugimenduen inguruko delituen aurrean". (Hizkuntz, kultur eta erlijio aniztasuna. Elikatzeko zailtasunak, osasun arazoak, etab. gartzeletan. Boluntaritza).

Lehendakaria: Esther Giménez-Salinas Irak. Dok. andrea, Europako Kontseiluaren Arazo Kriminaletarako Zientzi Batzordekidea.

Moderatzailea: Francisco Etxeberria Irak. Dok. jauna, UPV/EHUko Lege-Medikuntzako Irakaslea.

Hizlariak:

- Tony Peters Irak. Dok. jauna, Kriminologiako eta Zuzenbide Penaleko Katedraduna. Lovaniako Unibertsitatea.
- Josep Sugrañes jauna, Jesuit Refugée Serviceko Nazioarteko Zuzendari Laguntzailea. Erroma.
- Marcelo de Aráujo, Jr., Irak. Dok. jauna, Zuzenbide Penaleko Katedraduna. Rio de Janeiro.

23 Larunbata

9:00etatik 10:30etara. 4. Mahaingurua "Biztanleri mugimenduak eta Biktimologia". (Biktimen protagonismoa. Kaltegile hedatsua. Eraberritzetik berradiskidetzera eta birsorpenera).

Lehendakaria: Mª Angeles Mtz. de Pancorbo Irak. Dok. andrea, UPV/EHUko Biologia Zelularreko Irakaslea.

Moderatzailea: Iñaki Dendaluze Irak. Dok. jauna, UPV/EHUko Ikerkuntza Metodo eta Hezkuntza Diagnostikoan Katedraduna.

Hizlariak:

- Elías Neuman Irak. Dok. jauna, Biktimologiako Katedraduna. Buenos Aireseko Unibertsitatea.
- Antonio Beristain Irak. Dok. jauna, Zuzenbide Penaleko Katedradun Emeritu eta Kriminologiaren Euskal Institutoko Zuzendaria.
- José Luis Manzanares jaun txit garaia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lehendakariordea.

11:00etatik 12:30etara. 5. Mahaingurua "Kulturaz gaindiko bakearen emigrazioa" (Nazioko eta Nazioarteko Planak. Giza eskubideekiko eta justiziaren eskakizunekiko begirunea duten kultura berriak).

Lehendakaria: Mª Jesús Conde andre txit argia, Giza Eskubideetako Zuzendaria. Zuzentza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Moderatzaile: Luis Navajas jauna, Gipuzkoako Lurralde Entzutegiko Fiskal burua.

Hizlariak:

- Eusebio Fernández Irak. Dok. jauna, Bartolomé de las Casas, Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaria. Carlos III Unibertsitatea. Madril.
- L.E. Pettiti, Juge à la Cour Européenne des Droits de l'Home. Europako Kontseilua.
- Enrique Ruiz Vadillo, Epaitegi Goreneko Bigarren Salako Lehendakari eta Espainian Europako Institutuko Lehendakari jaun txit garaia.

13:00etan. GKEen omenezko Ekitaldi Akademikoa, kultur integrazioaren alde. (Gipuzkoako Foru Aldundiko Tronoaren Aretoan).

Hitzaldiak:

- Eli Galdós, Gipuzkoako Diputatu Nagusi jaun txit garaia.
- Antonio Beristain Irak. Dok. jauna, Zuzenbide Penaleko Katedradun Emeritu eta Kriminologiaren Euskal Institutoko Zuzendaria.
- Mª de la Luz Lima, Irak. Dok. andrea, Zuzenbide Penaleko Katedradun eta Kriminologiaren Mexikar Elkarteko Lehendakariordea.
- Elías Neuman Irak. Dok. jauna, Biktimologiako Katedraduna. Buenos Aireseko Unibertsitatea.
- L.E. Pettiti jauna, Juge à la Cour Européene des Droits le l'Homme, Europako Kontseilua.
- Guilherme L. Da Cunha jauna, Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisionatu Gorenak Espainian duen Ordezkaria.
- Denis Szabo Irak. Dok. jauna, Kriminologiako Irakasle eta Kriminologia Alderatuko Nazioarteko Zentroko Zuzendaria, Montreal.
- Enrique Ruiz Vadillo, Auzitegi Goreneko Bigarren Salako Lehendakari eta Espainian Europako Institutuko Lehendakari jaun txit garaia.
- Juan José Goiriena, UPV/EHUko Errektore jaun gorena.

**Ondore Handiko Hitzaldia:** José Antonio Ardanza, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari jaun txit garaia

16:30etatik 18:00etara. 6. Mahaingurua "Errefuxiatuak eta kultur integrazioa" (Hausnarketa kriminologikoak).

Lehendakaria: Georges Picca Irak. Dok. jauna, Kriminologiaren Nazioarteko Elkarteko Zuzendari Nagusia eta Avocat à la Cour de Cassation de Paris.

Moderatzailea: Juan Bautista Cremades, Gipuzkoako Lurralde Entzutegiko Lehendakari jaun txit argia.

Hizlariak:

- Juan Mª Bandrés jaun txit argia, Eurodiputatu eta Errefuxiatuaren Laguntzarako Espainiako Batzordeko Lehendakaria.
- Joaquín Giménez, Bilboko Lurralde Entzutegiko Lehendakari jaun txit argia.
- Ana Messuti andrea, Legelari Amerikarren Elkartekidea. Geneba.
- Josep Sugrañes jauna, Jesuit Refugée Serviceko Nazioarteko Zuzendari Laguntzailea. Erroma.
- Denis Szabo Irak. Dok. jauna, Kriminologiako Irakasle eta Kriminologia Alderatuko Nazioarteko Zentroko Zuzendaria, Montreal.

18:30etatik 20:00etara. Amaiera Ekitaldia.

Rapport orokorra: José Luis de la Cuesta, Zuzenbide Penaleko Katedradun eta UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko Errektore jaun txit argia.

Amaiera hitzak:

- Eugenio Raúl Zaffaroni, Irak. Dok. jauna, Zuzenbide Penaleko eta Kriminologiako Irakaslea. Buenos Aireseko Unibertsitate Nazionala. (ILANUD) Delituari Aurrea Hartzeko eta Delinkuentearen Trataerarako Latinamerikar Institutuko Zuzendari ohia.
- Georges Picca Irak. Dok. jauna, Kriminologiaren Nazioarteko Elkarteko Zuzendari Nagusia eta Avocat à la Cour de Cassation de Paris.
- Denis Szabo Irak. Dok. jauna, Kriminologiako Irakasle eta Kriminologia Alderatuko Nazioarteko Zentroko Zuzendaria, Montreal.

**Amaiera Hitzaldia**: Fernando Buesa, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Arazoetarako Lehendakariorde eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburu jaun txit garaia.

Eguzkiloreko ale berezi honetan, hiru egunetan zehar azaldu eta jorratu ziren ponentzia, komunikazio eta gainontzeko lanik gehienak aurki ditzake irakurleak. Irakurketaren bidez ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren eremuan, Unescoren babespean, bide berri bat urratzen hasiak garela ikus dezakegu, ondokoak babesle ditugularik: Justiziaren Administrazioan, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrarekin lankidetzan, Gizarte-Laguntzan, Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Goi Komisionatuarekin batera; bai eta gobernu-politikari dagokionean ere, Eusko Jaurlaritzako pertsonalitaterik ospetsuenen partaidetzarekin, Jose Ramon Recalde

jauna, Justizi Sailburua, eta Fernando Buesa jauna, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua. (Programan adierazten dira Solasaldian aktiboki parte hartu duten gainontzeko erakunde garrantzitsuak).

*Gai* gutxi izango dira gogoeta- eta sakontze-ihardunaldi hauetarako taldeko azterketa aukeratu den gai honek baino gehiago merezi dutenak. Komunikabideek egunero jipoitzen dute gure sentiberatasuna datu sinesgaitzekin eta han eta hemen biztanleri mugimendu tragikoek sortzen dituzten milaka eta milioika biktima dituzten estatistikekin. Puri purian dauden arazoak dira, premia larrikoak eta unibertsalak. Pertsona eta erakunde guztiongan dute eragina, izan ere, gaur bertan lanari ekiten ez badiogu, azken gerrarantz eta bizi dugun galaxia osoaren giza txirotasunerantz abiatu baikaitezke. Premiazko kultur integrazioa lortu behar da bakea lortzeko, bai eta gure Lurra zabor kosmikoko ontzitxo bat izan beharrean musikadun lorategia izatea.

Oso *helburu* handinahiak lortzeko asmoz, hamar herrialdetako *irakaslerik* prestatuenei luzatu zitzaien gonbidapena. Unibertsitateetan eta Gobernuko eta Gobernuz kanpoko erakundeetan goreneko erantzukizuneko karguak dituzten pertsonak; nazioartean nabarmentzen direnak beren adimen-gaitasunagatik, baina ez kartesiar motako adimenagatik bakarrik, baizik eta disziplinarteko gaitasunagatik, agapikoa, jaia eta adiskidetasuna barne, espezializazio baztertzailearen zentzugabekerian erori gabeak.

Solasaldiak, ahal zen neurrian behintzat, Europako Kontseiluko eta Nazio Batuetako antzeko topaketetako arauak jarraituz egin zena, ikerkuntza enpiriko eta axiologikoak gero eta gehiago indartzeko beharra azpimarratu zuen (On Joxe Migel de Barandiaranek, Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutoko Ohorezko Kide zenak adierazten duen bezala), eta era berean aukera eman zigun lehen mailako zientzilariekin ikasteko eta hitzegiteko, haien birtuosismoari eskerrak gure herrialdeak aberasten dituzten kultura eta erlijioetako sinbolo, mito eta sinismenen potentzialtasun harrigarriak ulertzeko, barne hartzeko eta garatzeko aukera izan dugularik.

Kosmobisio postmodernoen konplexutasunaren gehikuntza izan bada ere, deslilura gainditu behar dugu, eta hirugarren milurtekoa mehatxatzen duen zentzugabekeria gainditu. Gure europar herrialdetako ohiturak berrinterpretatu behar ditugu pertsona ororen duintasuna ahazten duten diskriminazioak gainditzeko eta amankomunean dugun muina poz bizigarriz betetzeko.

Inmigranteen eskubideak bortxatzen dituzten legeria nazionalak eztabaidatu ziren eta kritika zientifikoak formulatu ziren. Hain zuzen ere 1985eko lege espainiarrak, bere 26. artikuluan espulsio-arrazoi gisa seinalatzen du "legezko bizibiderik ez izatea, eskale gisa ibiltzea edo legez kanpoko ekintzak egitea"... eta administrazio-agintaritzari (ez judizialari) prebentziozko edo kautelazko izaeraz eta administrazio-espedientea gauzatu artean, atzerritarra berrogei egunetaraino atxilotuta edukitzeko eskubidea ematen dio. Horrela, artikulu honek prozesu penala estaltzen du eta prebentziozko presondegia ezartzen du, azken finean administrazio bidetik datorrena bada ere, santzio penal bihurtzen delarik. Argi eta garbi dago Konstituzioaren 25,3 artikulua urratzen dela.

Inor ez zen giza eskubideen bortxaketaren zentsura soilean geratu, inmigrazio-politika baterako programa positiboak landu baitziren, alde batetik kultur aniztasuna

eta bestalde nazismotik eta faxismotik hain hurbil dauden ideologiako sektore extremisten aurrean zaurgarri eta babesik gabe dauden gutxiengo horiek babestuko dituzten gobernuko eta gobernuz kanpoko neurrien garapena bultza ditzana.

Espainiako eta ia Europa guztiko gizarte-errealitateari buruzko gogoeta egin zen, pertsekuzioetatik ihesi perspektiba ekonomiko hobeak eta babesa bilatuz inmigratzen duten Hirugarren Munduko hainbat eta hainbat pertsonentzako erakarpengunea den heinean. Ate bat eta leiho asko ireki nahi izan ziren BESTEA, DESBERDINA dena gure magal gozoan har dezagun, gure geurekoitasun suizida eta autistatik libra gaitezen.

Zuzenbide pribatuaren eremuan agian komenigarria izan daiteke oinordeko bakarrari eta enborrezkotasunari eustea (baldin eta ezkontzako sindromerik sortzen ez badu) oinordekotzaren zatikapena saihestearren; baina, foro publikoan merezi du gurea zatitu eta *senitarteko giroan* besteekin *elkarbanatzea*, inor baztertu gabe. Ahalegin moral eskuzabala bilatu genuen, osatua eta integratzailea. M. Buber-en eskolak aldarrikatzen duen bezala, NIa ez da ageri ZU desberdina aintzatesten duen artean. Mestizaia emankorrak badira.

Ihardunaldi hauetan zehar unibertsitateko campus-eko kriminologia gure gizartearekin eta gure hedabideekin lotuz gurutzagune emankorrak sortu ziren. Izaki berri bat jaioko da, justizia berri bat: ez ordainketazkoa, ez eta berrezarpen soilekoa ere? Justizia jolasgarria, soziala, senitartetasun eskuzabalekoa, gehiago ematea eta gutxiago edukitzea eskatzen badigu ere, gauza gutxiago baina zoriontasun handiagoa?

Amaitu aurretik, gure unibertsitate-lana garatzea ahalbidetzen dutenei gure esker ona adierazi behar diet. Aipamen berezia egin behar diogu gure Unibertsitateko Errektore gorenari, Juan José Goiriena jaun txit gorena, Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailburuari, José Ramón Recalde jaun txit gorena, Enrique Ruiz Vadillo jaun txit gorenari, Auzitegi Goreneko 2. Salako Lehendakaria eta Europako Institutuaren Zuzendaria Espainian, Eusko Jaurlaritzako Zuzentza Sailorde txit prestuari, Encarnación de Miguel andrea, Giza Eskubideen Zuzendariari, Mª Jesús Conde andrea, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerkuntzarako Errektoreordeari, Juan Ramón González Velasco jaun txit prestua, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordeari, José Luis de la Cuesta jaun txit prestua, Akademi Antolakuntzako Errektoreordeari, Pedro Luis Arias Ergueta jaun txit prestua, Pauko Unibertsitateko Reynald Ottenhof eta Robert Cario Profesoreei, Francisco Etxeberriari, IVAC-KREIko Idazkari Nagusia, eta Augusto Maesori, *Eguzkilore* gure aldizkariko Zuzendaritza Batzordeko Idazkari Teknikoa, Institutuko irakasle guztiei, Gipuzkoako Diputatu Nagusiari, Eli Galdos jaun txit gorena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Diputatuari, Mª Jesús Aramburu andre txit prestua, Donostiako Alkateari, Odón Elorza jaun txit prestua, Vitoria-Gasteizeko Alkateari, José Angel Cuerda jaun txit prestua, administrazio idazkaritza, liburutegi eta informatikako zerbitzuetako lanak egiten dituzten pertsonek ahaztu gabe, eta aipatu behar ditugunak: Inmaculada Iraola, María Jesús Lasquibar, Arantza Redondo, Itziar Aristizabal, Itziar Ibáñez, Isabel Germán, Lourdes Ruiz, Isabel San Vicente, Pedro Achutegui, Roberto Casas eta Francisco Marín, bai eta Gema Varona ere, KREIen Eusko Jaurlaritzaren beka baten bidez ikerketa lanetan ari dena, eta eskuzabal eta adimenki beren lankidetza eskaintzen digutenei.

Baita ere agertzen diegu gure esker ona Banco Bilbao-Vizcaya Fundazioaren Lehendakari txit gorenari, José Angel Sánchez Asiain jauna, eta Fundazio honen Zuzendariari, Mª Luisa Oyarzabal anderea, azkeneko Anexoa, 1994.go martxoaren hilabeteari dagokion CIRESeko alea, berregin uzteagatik.

Oso aipamen berezia merezi du Eduardo Chillida jaun txit gorena, gure Euskal Herriko Unibertsitateko Urrezko Domina eta San Fernandoren Arte Ederretarako Errege-Akademiaren Ohorezko Akademikoa, gure "Delinkuentziari, marginaltasunari eta gizarte harremanei buruzko Nazioarteko Ikerkuntza Zentroa"-ri logotipoa sortu eta opaltzeko begikotasun eta eskuzabaltasun izan duena. Atsegin eta esker on sakonez aurkezten dugu aipatutako logotipoa *Eguzkikore*, Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología, zenbaki berezi honen azalean. Gaurtik, hau izango da "Delinkuentziari, marginaltasunari eta gizarte harremanei buruzko Nazioarteko Ikerkuntza Zentroa"-ren logotipoa.

Ezin amai ditzaket orrialde hauek -esker onez- adierazi gabe José Antonio Ardanza Lehendakari jaun txit gorenaren hitzaldiaren lerro batzuk hona aldatu gabe: "milaka urtetan zehar, bestearen, bere desberdintasun etnikoaren, kulturalaren edo sozialaren ikuspegi erasokorra edo gutxienez diskriminatzailea da garaitu izan dena. Harrigarria bada ere, era berean orain dela mila urtetik honantz senitarteko munduaren ikuspegia hedatu nahian ari da, Lurra saminez eta bortxakeriaz betetzen duten hesi eta aurriritziak botatzeko gai dena".

Humanismo sakon honen ildo berean Unesco-ko Zuzendari Nagusiak, Federico Mayor Zaragoza jaun txit prestuak, gaiak konplexuak, berriak eta garrantzitsuak direla adierazi zuen: "Zalantzarik gabe, idazten du, solasaldi honetan jorratutako gaietako bakoitza nahikoa litzateke nazioarteko bilera bat edo gehiago sortarazteko. Hemen multzoan aztertu nahi izan dira, hau ekimen berritzailea izanik, giza eskubideen, biztanleri mugimenduen, kultur integrazioaren eta bakearen arteko erlazioei argitasuna ematearren. Lanak, zalantzarik gabe, konplexutasun handia agertzen du baina partaideen kalitatea kontuan hartuz, funtsezko auzi hauek kokatuta dauden labirintoa guztion mesederako askatuko dela esan daiteke.

Antonio BERISTAIN
Delinkuentziari, marginaltasunari
eta gizarte harremanei buruzko
Nazioarteko Ikerkuntza Zentroaren
Zuzendaritza Kontseiluaren partaidea